




IZARRA  
ANTZERKI-  
SALLA



12'g. zenbakia



MANUEL REKONDO

# PERIRA

BAKARIZKETA




DONOSTIA'N  
MARTIN, MENA Y C.<sup>AS</sup>REN KEEKAN  
Euzkintza, 14, leko gulan

1921

Agintar 5

ATV

31397





M- 69489  
F- 73428

AV  
31397

MANUEL REKONDO

# PERIRA

BAKARIZKETA



DONOSTIA'N  
MARTIN, MENA TA COMPAÑIA'REN ETXEAN

—  
1921

MARTELL & CO

PERIRA

BRASIL



BRASIL



# PERIRA

BAKARIZKETA

I

INAXIO

(Inaxio, basefi baten atarian. Auzoko bere etxetik dator Joxpeantonio'ri deitzera).

¡Bazekizute zef komedi dabiltean...! Bai. Perira jun nai, ta aitzakirik ezin bilatu. Andren menden egotek lanak dizkik, bai. Joxpeantonio esnatuko banu, aren afimoan jungo nitzeke sikira. ¡Emen (Etxe-bafuan) egongo da ura sano asko lo! Ikusi zadan esnatzen ote dan. (Atea joaz) ¡Joxpeantonio...! ¡Eup... Eup! (Apuñ batean egonda) ¡Bai zera...! Ori esnatu... Bapo dago ori; zufunkak emendik ere aitzen die-ta. Ixo... ixo... ¿Ez dezue aitzen? (Zufunka-otsak entzuten dira bafuan) Ez naiz aritzen, ez, gau guztie karobin, atakan pasa du-ta... (Ateari bultz eginda) Atea ere itxita dago beñiz. Olakotan bai izango ere. Jakiña: andrea ta semea Eñnialde'ko pestan ditu-ta... Bestela bafena jun da esnatuko nun.

¡Alpeñik dek ba! Mendi guztik aufen jañtzen bazaizkit ere perira jun gabe ez nauk ni gauñ geldituko. Aritz-tantaiak bireen zeañtara jañtzen bazaizkit ere, ez nauk ni gauñ perira jun gabe geldituko. Ezta... bi kanako elufe eiten bao ere...

Baña... ixo, ixo... ¿Bakizue ni señmolarì ona izango nitzekela? Lastima da ni apaiz ez egin beaña... ¿Oraindio ere ez ote nitzeke geo eingo? Ez, ez: zañ-xamaña naiz oñtarako, ta burue gogofa euko det. Gañera... ¿atxoari zef eingo nioke?

Apaiza aitatuta, lengo egun baten ikusi dean geñtakai bat gogoratzen zat... Zuei esan bae ezin utziko det, arituko zerate noski-ta.



Jun naiz ba Bilipfanka'ra egin beaf batzuetara, ta kanpaia jo ta kanpaia jo etzien ixiltzen. Ala naola, gizon bat nere auren pasa zan, ta galdetu nion:

«— Aixkire; atrebientzikerie da ba baño... ¿Bilipfankatafa al-tzaitugu?»

»— Bai, sefbitzeko.

»— ¿Kanpai oik zeñ esan nai duen jakingo dezue orñun?»

»— Laixteñ meza dala.»

¶ Ori entzutean, meza ori ikusi beaf degula ba, ta jun naiz elizara. Jun banaiz jun naiz. Gogoratuta ere pafegurea etoñtzen zat. Ikusgaie zan orati uraxe... Banao ba elizan, eta nun datozen sakristitik iru apaiz. ¿Eta irurek ez die ba aldare baten gelditu? Egiegie esateko, eun da sekulan ez non nik beste ofenbeste ikusi. Ni beintzat ari ta zuri eginda gelditu nitzen. Iru apaiz meza bat ematen: ¡Jas...! Baño gauzarik aundiña au dala, ez pensatu. Orain datoñ polife, orain.

Nere artean: «meza azkarago emateatik iñtengo ituan ba iru abade...» ¡Etzeoan toki txafen kontue! Asi die irurek mañ, mañ, mañ... eta andik laxteñ ¿ez die ba irurek exerita jafi? Ez geo txantxetan ari naizela pentsatu. ¡Nere begi okintxe ikusi nun gero! (Apuñ batean egonda) Nere burura zeñ pentsamentu etofi zien orñun, ez da eñez esatea. ¿Erotu ein ote die? ¿Gaxo jafi ote die? ¿Aulerik eman ote die? Iñola ez nun asmatzen... Noiz bait oratire altxa die. Baña ¿zeñ egiteko uste dezue? Asi dire kantari, bata ixkiña ontan, uñengo beste ixkiñan, irugañena ango mutufen. ¡Santa Ageda'n negola uste nun!

Ez dezue sinistu naiko, baña oik guztik baño areagoa, gero geñtatu zan. ¿Zeñ zan ori? ¿Ez die ba bigafen aldiz exeritzen? Orñuntxe nere pazientzik irakin zun. Laisteñ egin nitun ango aldik eta jun nitzen nere lanetara. Meza ura, oraindik bukatu gabe egongo dala uste det. Esan ere banion eñiko abaderi: «¿Beofi emen estimatzen deula? Ixtimatu genzake bai emendik auñera geigo ere, nik ikusi deana ikusita.» Esan nion ba zeñ ikusi nun, ta jafk ein zitun algarak...! Afk paña ein zun, baña ori ala da. Gure abadek, bakarik izan añen, aien alden azkar eñten ñitu elizako lanak. Aita-koon bat gure eñira etoñtzea ez dedila beintzat geñtatu: goizetik iluntzera elizan egon beaño genduke meza entzuten...



Onezkeo, gure Joxpeantonio'k naiko lo eingo al zun. Befiz ere ikusi beaf degu ba esnatzen ote dan. (Len bezela deika) ¡Joxpeantonio... Joxpeantonio... etxea eroitzen ai dala... etxea eroitzen ai dala... etxea eroitzen ai dala... eup... eup... eup... Joxpeantonio... muitzeko azkař, azpin ařtuko zaitula...!

¡Bai zera! ¿Ori esnatu? Ez da eřege Donosti'ra etořtzen danen gaztelutik botatzeituen kařonazoak belafin ondoon botako balizkiote erė... ¡Orixe dek lo ein beafa!

Ořen afimokin ere etzeok ba pıobetxuik. Alpeřik dek ba. İlabete pasatue dek ni perin izan enaizela, ta gauř jun beaf diat. Iru ilabete bařu txekořa ere saldu beařko diagu, ta plazako beři jakin bae ez natxok ondo, bestela arakiřnen batek kezka asko gabe ziria sařtuko ziak. Atxoa atxo, ta ixkanbiřak ixkanbila, nere ankak Tolosa'ko plazan sařtu beaf die gauř.

Bařo... (Zakelean zenbat diru daukan begiratuaz) ¿Beař ainbat diru ba ote dauket? Ori izango dek beřiz beste ixtilue. Ez geo pentsatu gure atsook perirako xentimoik emango duanik. Eta nik nere ařan-txoa ařtu beaf det: koařtilo bat ařdo, txuleta ta liřba bat ogi. Bi zakuř aundi ogie, eřeala ařdoa ta bi eřeal txuleta. Peseta bat bost xentimo gutxi guztie. Ez dizkiot ba nik gauza aundie danik noizean bein perira dijon gizonantzat. Ia ba zenbat daukean... (Banaka zenbatuaz) Bi... sei... amař... amabost... iru eřeal bakařik. ¡Abařka zaara! Au dek au, lanbide jeneroa. Ogintzako palta. ¿Zef egin beař det nik oain? (Pentsatu ondorean) ¡Aupa motelak, edefki nauk! ¡Oso ondo pentsatue! Kanpotafen bat daneako gelako ařmarion goi-goiko apalen gure atxok eukitzen du ogie, eta ixil-ixilik zati bat ona andixe ařtuko det, eta ura kolkon ařtu ta berakin jungo naiz perira... (Bere kopeta joaz) ¡Beajondakiola orain ere İñixio zafaren buruari!

Orain okeřena palta zaidak. ¿Atxori nola ageřtuko diot nik nere asmoa? Itzez beintzat itoko nau. Periarren izena entzuten dun bezin laixteř, ařen mařmařa izango da ořtik onerakoa. Izan ere, ařtok soron dare, gaztařnak aletan, basoon garoa beřiz garadin, eta buruz gain lan guztik. Dana dala, goazen beřepin, eta ikusi zagun bazkaririk ematen diguten. Belaxe natoř, eta geřtaera guzie esango dizutet... bizirik uzten banau. ¿Ez iges egin, e...? ¡Belaxe natoř...!



II

(Lengo toki berean) Ara emen ni, esan bezelaxe. ¡Oraingo ontan seguru gea! Ez naiz asefe ontan naizenen. Ustea banun da bai izan ere. Izugari komerigari ibili gera. Pentsatu utsek paregurea ematen dit. ¡Jas... oik istiluk!

Emendik jun eta saftu naiz ba etxen, eta orduntxe zetofen gure atxoa, zakue burun, babafunek malen eta afito banaka batzuk besapen. Banao ba sukalden eserita, ta nere ondora etofi danen, esan diot:

«—Bazkari legea ein beafkoet ba.

»—Zare beintzat bestek etofi arte, gure jango gendukenen gare-ta.»

Eon naiz pixkaten. Esango ote diot, ez ote diot esango... bazkaldu bae jungo ote naiz, ez ote naiz.. Atzenen ere ofati, goseek akabatzen neon berdin, ta bota diot, fau, esanaz: «Ez dauket nik beste etxoiteik, perira jun beafa dauket-eta.» Aftu du periaren izena... ¡Ene, ene ura begiratue..! Uste nun joko niñula. Bereala asi du bere efosarioa taf, taf, taf, taf, tif, tif, tif, tif, tuf, tuf, tuf, tuf. Ni beriz ixilik. ¿Ze eingo nun ba, aren beaf nitzen da?

Nere arteen banao... ¿ez ote dit emango bazkaririk? Eitzea arapatuta iges egitia ere pentsatu det... baña ez, laistef junda apalera elbik jotako zaldie dirudila, aftu do katilue, gero ore-maiti bi talo aftu ditu, suftan jari do taloburnie, zabaldu do taloa, ta baita babak katilura atera ere Orduntxe lasatu naiz.

Baño deabrue ez dao beñere lo, ta olakotan okef guzik bateen izaten die. Pozez ola naola, ¿ez da ba olo zuri bat, orea su-ondon ikusi dunen, kofika saftu bera jatea? Ta ori baño okefagoa: bere anka zafakin katilue bota do pifilikan, eta babak lufera. Ofa pesta edefa. Uste non gureak ein zula orduntxe. Atxoak aftu zitun tenazak, eta tira dizkio oloari. Oloa ez do jo, baña ni bai, ia, ia. Jo banindun, biaf entiefoa. Egí-egiz esaten dizuet: naigo nun jo ta il bazun olo uraxe... ¡alako afabie eman dit neri ere...!

Banao zef ikusi beaf ote degun, ta ofeati atera ditu beriz babak katilura, eta eman dizkit eskura katilue ta taloa. ¡Nere ofduko pozal! Ez nitzen asefe. Nik aik jaterako beste taloa efe da, ta urdai puska batekin ura jan det eta bapo. Musika ta guzti bazkaldu det;



ez baita une baten ere ixildu bere efosarion. Afk zer esan ditun asmatzen ez da efex: alpeña, etxe-galtzalea, ajolakabea eta beste mingari guzik. Bai, gauñ ixilik utzi diot, baña etofiko da itzegiteko egune.

Bruxa aitzeko aitzekin igo naiz gelara. Afmarioa irikitzeko bilduñez negon: ¡*kufink* egiten baitu.. ! Baña etzan bilduñik ez. Ari zan ixildu gabe bere tañafaran, ta nere aften: «Akio, akio, akio, ondo etofen da.» Itxi det afmarioa, kendu diot zati bat ogiari, ara, (erakutsiaz) sañtu det kolkon eta kaxo motel. Gure Joxepatxok eta Iñaxiok paatuko due ederki. ¡Ain aitzaki izango baita ogi-lapuñeta! Pena ematen diate baña, ¡zer eingo degu! Nik ere aikatik supritzen det eta aik ere supfitu dezatela orain.

Baña ezin aztu zaizkit ofatik gure atxo zipotzat esan ditunak. ¿Ni etxe-galtzalea ta alpeña naizela? ¿Gau ta egun lan egiten of gebiltzek-eta? ¡Zital txaña, alaen zital txaña!

Umore txañ au kentzeko, berño bat kantatu beañ dizuet.

Jaunak, bañkatu neri  
gauñko txolañtea,  
ilabete ondoren  
perira joatea.  
Ez diotzat dala ori  
deskalabñatzea,  
atxoak deitutzeko  
etxegaltzalea.

Neretzako, neretzako,  
ori dek gure atxo;  
beretzako, beretzako,  
oso beste modukoa.

Peri-egunaz saski zabala  
añautzaz beteta,  
arin dijoa azoka aldera  
buruan añtuta.  
Tratoa saldu, bazkaldu eta  
etxera danean,  
sañdiña zaña senafarentzat  
saskin ondañean.

Nere bizitza zef dan  
ofa jakin ondo;  
jail mixeria pfanko  
guretzat badago.  
Baldin bizi izan banitz  
alper eta sendo,  
nagon bezin argala  
ez nitzan egongo.


Ixtiluk gora-bera, ni perira noa beintzat eta kontuk kontu.  
Beste inofk etofi nai bado... ¡segi neri!

MANUEL REKONDO.

## Z A P I A







# IZARRA

Antzerki sala = Colección de comedias

## AGERTUAK

- 1.<sup>a</sup> : *Jauregi-errotako astoa*. Alfonso M.<sup>o</sup> Zabala'k asmatutako bakarizketa. (N.<sup>o</sup> 1. Monólogo original de A. M. de Zabala)..... 0,50
- 2.<sup>a</sup> : *Uruti-izketa*. A. M. Zabala'k idarzitako antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoak bakarrik egitekoa. (N.<sup>o</sup> 2. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. Zabala)..... 1,00
- 3.<sup>a</sup> : *Melitona'ren bi senarok*. A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal batekoa ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 3. Comedia en un acto, para hombres solos, A. M. de Zabala)..... 1,00
- 4.<sup>a</sup> : *Mendibe'taren lariyak*. A. Lafaitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 4. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz)..... 1,00
- 5.<sup>a</sup> : *¡Uxi bearko!* Deñoka'tar Goserio'k euskeratutako antzerkia. Gizonezkoentzat. Atal batean. (N.<sup>o</sup> 5. Comedia en un acto, para hombres, traducida por Goserio de Deñoka)..... 1,00
- 6.<sup>a</sup> : *Neskame berria*. Emakumezkoentzat bakarrik, atal bateko antzerkia. Deñoka'tar Goserio'k euskeratua. (N.<sup>o</sup> 6. *La criada nueva*. Comedia en un acto para mujeres solas, adaptada por G. de Deñoka) 1,00
- 7.<sup>a</sup> : *Gizon bikañak*. Gizonezkoentzat, atal batean. Deñoka'tar Goserio'k euskeratua. (N.<sup>o</sup> 7. Comedia para hombres, en un acto) . . 1,00
- 8.<sup>a</sup> : *Tripa-Zoria*. Gizonezkoentzat, atal batean, Toribio Lafea'k eraturtako antzerkia. (N.<sup>o</sup> 8. Comedia en un acto para hombres, por Toribio de Lafea)..... 1,50
- 9.<sup>a</sup> : *Mofoi jatoia*. A. Lafaitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 9. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Lafaitz)..... 1,00
- 10 : *Gau-ostatua*. Iruretagoyena'tar J.'ren antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 10. Drama en un acto, para hombres solos, por J. de Iruretagoyena)..... 1,50
- 11 : *Gizatzaia*. Manuel Rekondo'k egindako antzerkia. Atal batekoa ta emakumezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 11. Sainete en un acto, para mujeres solas, por M. Recondo)..... 1,00
- 12 : *Perira*. Manuel Rekondo'k egindako bakarizketa. (N.<sup>o</sup> 12. Monólogo, por M. Recondo)..... 1,00

---

**Antzerki oek guziak, Donostia'n, Leizaola'ren idaxtitegian (Garibay, 28) daude salgai.**